

PRESTAKUNTZA ARLOA:	ERABILERA PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
MODALITATEA:	AURREZ AURREKOA
HIZKUNTZA:	EUSKARA

1. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Apirilak 11,13,18,20,25,27	IKASGELA/ TOKIA	28. gela, IVAP Eusko Jaurlaritza Donostia- San Sebastian kalea, 1 Vitoria-Gasteiz
IRAUPENA	15 ordu	ORDUTEGIA	9:00-11:30
MATRIKULA EPEA	Martxoaren 11ra arte	ONIRITZI EPEA	Martxoaren 31ra arte
IKASLE KOPURUA	15	HARTZAILEAK	EAEko Herri Administrazioetako langileak.
IRAKASLEA	Labayru	MATERIALA	Ikastaroan banatuko da
DISEINUA	Labayru	AZPIEGITURA	Ordenagailua eta arbela

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	1.HE idatzizkoak sortzen trebatzea. Idatzizko horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.
HELBURU ZEHATZAK	Azterketaren aurkezpena egin. IVAPeko proben balorazio irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna. Eredu onak, idazteko estrategiak eta eskemak landu. Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin. Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin. Zuzentasunari buruzko azalpenak eman: oinarrizkoak diren akats larriak aipatu, aholkuak eman.
GAITASUNAK	Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da 1HEko idatziak sortu behar dituenean, protokolo jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

1. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

- Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.
- Talde txikietan lan egiten saiatuko gara.
- Egindako lana konpartitu eta komentatuko da.

PROGRAMAZIOA

1. saioa:

B1 mailaren deskribapen orokorra egin.
1HEren azterketaren egitura azaldu, eta bereziki idazmen-probaren idatzien nondik norakoak.
Idazmen-proba bat egin, azken eskola-egunean zuzentzeko.
Galderak egin: nola ibili diren denboraz azterketa egitean, eskemarik egin duten, idazlan luzea egitean eskemaren garrantzia azpimarratu.

2. saioa:

IVAPeko proben balorazio irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.
Idazteko prozesua azaldu: eredu onak idazteko estrategiak eta eskemak landu.
Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin.

3. saioa:

Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.
Inprimakia: azterketan agertu daitezkeen inprimakien ezaugarriak, eskatzen dena eta egiteko prozedura birgogoratu.
Inprimakia idatzi.

4. saioa:

Aurreko eskola-egunean idatzitako inprimakia zuzendu.
Aberastasunari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.
Mezu elektronikoa: azterketan agertu daitezkeen inprimakien ezaugarriak, eskatzen dena eta egiteko prozedura birgogoratu.
Mezu elektronikoa idatzi.

5. saioa:

Aurreko eskola-egunean idatzitako mezu elektronikoa zuzendu.
Zuzentasunean baloratzen denaren berri eman eta ariketen bidez landu.
Aprobetxamendu-proba.
Etxerako: lehen eskola egunean egindako norbere idazmen-proba zuzendu.

6. saioa:

Aprobetxamendu-probaren zuzenketa eta hobetzeko proposamenak.
Lehen eskola egunean egindako idazmen-probaren irakaslearen zuzenketa eman, eurek egindakoarekin erkatzeko.
Azken gomendioak eta birpasa ariketak.
Balorazioa.

1. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

EBALUAKETA	<ul style="list-style-type: none">▪ Ebaluaketaren helburua: Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.▪ Ebaluaketak jaso beharko du: Ebaluaketa egiteko saioan eskatutako proba neurtu eta baloratuko da.
IKASTAROAREN BALORAZIOA	<ul style="list-style-type: none">▪ Ikasleen gogobetetze inkesta▪ Irakaslearen balorazio inkesta
ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA	Bete beharreko baldintzak: <ul style="list-style-type: none">▪ %80ko bertaratzea▪ Aprobetxamendu proba gainditzea
PREZIOA	145 € AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena. EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.